

eman ta zabal zazu



ERIZAINZA ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KALITATEA

IRRINTZI FERNÁNDEZ AEDO
SENDOA BALLESTEROS PEÑA

2016

ERIZAINZA GRADUA – MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEA – LEIOA

ARIKETAK

ARIKETAK

Ondoren proposatzen diren ariketek teorian ikusitako ezagutzak praktikan jartzeko aukera ematen dute.

LEHENENGO ARIKETA:

AKATSAK PRAKTIKA KLINIKOAN

Ariketa hau egiteko ondorengo link-ean sartzea ezinbestekoa da (<http://hws.vhebron.net/envin-helics/Pronovost/videogran.html>). Bertan landuko den informazioa ikusi eta ondoren jorratuko duzu. Ondoren jarraitu adierazten zaizkizun azalpeni.

- Hainbat tumoreen tratamenduan, ohikoa da VINCRISTINA eta METROTEXATO farmakoak aldi berean erabiltzea.

VINCRISTINA: Oso toxikoa suertatu daitekeen farmakoa da. Administrazio bidea zain barnetik baino ezin da izan. Administrazio intratekalak heriotza ekar lezake (IT)

METROTEXATO: Leuzemiaren kasuan VINCRISTINAREKIN batera ematen den farmakoa da sortzen den sinergiagaitik. Administrazio bidea intratekala da.

Aurrekoa kontutan izanda, bideoan ikusi dena, hau da, sortu den istripua akats askoren segiden ondorioz sortu dela jakinik (Reason-en teorian oinarrituz), ondoren proposatzen zaizun Ishikawa diagrama erabiliz, sailka itzazu bideoan ikusitako akats posibleak.

ISHIKAWA DIAGRAMA, ARRAIN HEZURDURA

